



KORDULIA GORPUZFINA

Oxygastra curtisii

TAMAINA

47 - 54 mm

ITXURA

Kordulia gorpuzfinak sabel estua du, beltzarana, goiko aldean puntu lerro hori batekin, adinarekin ezabatzen dena.

Atzeko hegalkak aurreko hegalkak baino zabalagoak ditu oinarrian, eta toraxa berde metalikoa du.

ESPEZIE
BABESTUA
HARRAPATZEA
EDO HILTZEA
DEBEKATUA DA

NOLA IDENTIFIKATU?



NOIZ?

> Maiatz bukaeratik agorrila bukaerara

NON?

> Ur barean
> Landaredi aberatseko ur-bazter
zuhaiztuetan



Gomphidae familiako burruntziekin nahas daiteke. Identifikatzea aski zaila da asko eta fite mugitzen delako, pausatua delarik errazago da.

AURKEZPENA

BIZI ESPERANTZA

2-3 urte (hilabete batzuk helduentzat)

ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Intsektu hegalaria jaten ditu.

Emeak oso diskretuak dira eta nekez ikus daitezke. Arrak lurraldekoiak dira, eta etengabe emeen bila patruilan ibiltzen dira, 6-15 m-ko urertzetan. Ugalketaren ondotik, emeak, arraultzak ur azalean uzten ditu, urpean diren zuhaitzen sustrietan. Larbak bizpahiru urtez hor bizi dira, maiatza eta uztaila bitartean hegaltu aitzin.

BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

Kordulia gorpuzfina bere habitataren egiturarekin eta uraren kalitatearekin oso sentikorra da.

Horren ondorioz, zenbait mehatxuk eragina izan dezakete bere biziraupenean:

- > Uren kalitate onaren kaltetzea.
- > Giza erasoak bere habitatean.

Hori saihesteko, errekek eta haien kalitatea zaintzea, ur-bazterrak babestea eta laborantza-jarduera tradizional bati eustea (tratamendu kimikoak mugatuz) beharrezkoa da.